

TURISMOAREN KONTU SATELITEA. Aurrerapena 2020

Euskal AEko turismo-gastua % 43,4 jaitsi da 2020an, eta 2.878 milioikoa da, BPGren % 4,0

2020an, Euskadiko turismo-gastuaren osagai guztiek, eta halaber Euskal AEko herritarrek kanpoan egindako turismo-gastuak, behera egin dute

2020ko pandemiak eta mugikortasunaren murrizketek Euskadiko turismo-gastuaren osagai guztiei eragin zieten, bai eta Euskal AEko herritarrek kanpoan eginiko turismo-gastuari ere. Gastu hori 2.878 milioi eurokoa izan zen Euskal AEn, 2019an baino ia 2.206 milioi gutxiago, hau da, % 43,4 gutxiago, Eustaten datuen arabera. BPG-Barne Produktu Gordinaren ehunekotan, turismo-gastua 2,4 puntu jaitsi zen: 2019an % 6,4 izatetik 2020an % 4,0 izatera.

Turismoaren Kontu Satelitea Turismoaren Mundu Erakundearen metodologiaren arabera egiten da (TME, EUROSTAT, ELGA, 2010), eta **turismoaren hainbat parametro ekonomiko zenbatzen ditu, bai eskaintzaren ikuspegitik, bai eskariarenetik**, bi ikuspegiak integratuz eta lotuz Kontabilitate Nazionalean gainerako jarduera ekonomikoak kuantifikatzeko erabiltzen direnekin.

Erorikoa ezohizkoa dela ulertzeko, kontuan hartu behar da ezen, erregistroak daudenetik, Euskadiko turismo-gastua behin baino ez zela murriztu. Krisi ekonomikoaren ondorioz gertatu zen 2009an, eta, orduan, gastu turistikoa 164 milioi euro baino ez zen murriztu, hau da, % 4,4 aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Euskal AEko BPGra turismoak egindako ekarpena. Balio absolutua eta portzentajea. Uneko prezioak. 2010-2020

	2010	2015	2016	2017	2018	2019	2020(a)
Turismoko gastua, guztira	3.632.144	4.355.670	4.632.752	4.766.068	4.887.607	5.084.280	2.878.487
Turismo hartzailea	1.887.771	2.484.045	2.732.718	2.820.536	2.932.810	3.036.341	1.360.767
Turismoaren beste osagai batzuk	1.744.373	1.871.625	1.900.034	1.945.532	1.954.797	2.047.939	1.517.720
Turismoko gastua, guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Turismo hartzailea	52,0	57,0	59,0	59,2	60,0	59,7	47,3
Turismoaren beste osagai batzuk	48,0	43,0	41,0	40,8	40,0	40,3	52,7
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa							
Turismoko gastua, guztira	5,4	6,3	6,5	6,4	6,3	6,4	4,0
Turismo hartzailea	2,8	3,6	3,8	3,8	3,8	3,8	1,9
Turismoaren beste osagai batzuk	2,6	2,7	2,7	2,6	2,5	2,6	2,1

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

Oinarria 2015


(a) Aurrerapena

Osasun-krisiak gastu turistikoa osatzen duten bi agregatuei eragin zien, baina eragina handiagoa izan zen **Turismo hartzailean**. Gastuaren osagai horretan sartzen da atzeritik eta Espainiako gainerako lekuetatik etorritako pertsonen turismo-gastua Euskadin, eta, 2020an, % 55,2 murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta. **Turismo-gastuaren bestelako osagaien** artean sartzen dira Euskal AEko egoiliarrek Euskal AEn bertan egiten duten turismo-gastua, Administrazio publikoek turismoarekin lotutako programetan egiten duten gastua eta turismoaren berezko jarduera-adarren Kapital

Eraketa Gordina (Inbertsioa). Pandemiak bigarren agregatu horri ere eragin zion, baina modu arinagoan, eta murrizketa % 25,9koa izan zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Osasun-krisiaren ondoriozko turismoaren uzkurdurak Euskadiko turismo-saldoaren defizita murriztu du

2020an, osasun-krisiak turismo igorleari zein turismo hartzaileari eragin zien. Bi magnitudeak urtebete lehenago lortutako balioen erdira baino gutxiagora murriztu ziren. Kopuru absolututan, murrizketa handiagoa izan zen **turismo igorlean**, eta horrek Euskal AEko turismo-saldoa hobetzea ekarri zuen, 2019an -1.702 milioi eurokoa izatetik 2020an -616 milioi eurokoa izatera igaro baitzen. BPGren ehunekotan, datu horien arabera, saldo turistikoa 2019an -% 2,1ekoa izatetik 2020an -% 0,9koa izatera igaro zen.



Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

Pandemiaren eraginak hiru lurraldeetan nabaritu ziren

Mugikortasun-murrizketen eraginak hiru lurraldeetan izan zuen eragina. Bizkaian izan zen jaitsierarik handiena, % 45,7koa; hau da, 2019an baino 1,7 puntu gutxiago. Gipuzkoan % 42,7ko jaitsiera izan zen, baina turismo-gastu osoan duen partaidetza puntu erdi igo zen. Bestalde, Araban jaitsiera txikiagoa izan zen, % 38,1ekoa, eta turismo-gastu osoari eginiko ekarpena 1,2 puntu igo zen.

Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. BPGaren (m.p.) gaineko balio absolutua eta ehunekoa. Uneko prezioak . 2010-2020

	2010	2015	2016	2017	2018	2019	2020(a)
TURISMOKO GASTUA							
Euskal AE	3.632.144	4.355.670	4.632.752	4.766.068	4.887.607	5.084.280	2.878.488
Araba/Álava	508.500	612.728	642.301	655.759	662.360	676.772	418.786
Bizkaia	1.579.983	1.928.156	2.050.133	2.140.156	2.196.957	2.263.742	1.230.443
Gipuzkoa	1.543.661	1.814.786	1.940.318	1.970.153	2.028.290	2.143.766	1.229.259
EHUNEKOAK							
Euskal AE	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100
Araba/Álava	14,0	14,1	13,9	13,8	13,6	13,3	14,5
Bizkaia	43,5	44,3	44,2	44,9	44,9	44,5	42,8
Gipuzkoa	42,5	41,6	41,9	41,3	41,5	42,2	42,7
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa							
Euskal AE	5,4	6,3	6,5	6,4	6,3	6,4	4,0
Araba/Álava	4,8	5,5	5,5	5,5	5,4	5,3	3,7
Bizkaia	4,6	5,6	5,7	5,7	5,7	5,6	3,4
Gipuzkoa	7,0	8,0	8,2	8,1	7,9	8,0	5,1

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

2015 Oinarria

(a) Aurrerapena

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62